

## **Fineco Kutxabanken Banka Pribatuko inbertsio funts batek AENORen ‘ESG’ ziurtagiria jaso du**

- **‘Fon Fineco Inversión Responsable, FI’ mugarría da Kutxabanken Banka Pribatuko inbertsio prozedura guztietan jasangarritasun irizpideak bateratzen joateko prozesuan**

**2019ko azaroaren 19an.** ‘Fon Fineco Inversión Responsable, FI’ funtsak gizarte ikuspegitik jasangarria den finantza-produktua kalifikazioa jaso du, AENOR kontsultoreak eman dion adostasun agiriaren arabera. Agiri honek UNE 165001:2012 arauaren araberrako kudeaketa duela onartzen du.

‘ESG agiría’ jaso izana beste urrats bat da Fineco Kutxabanken Banka Pribatua 2016az geroztik inbertsio jasangarrietan egiten ari den ibilbidean. Nazio Batuen Inbertsio Arduratsuen Printzipioak sinatu ostean, inbertsio jasangarrien arloan aurrera egiten jarraitu du Finecok, eta ESG irizpideak hainbat funtsetan bateratu ditu, hau da, ingurugiroarekin, gizartearekin eta bidezko agintaritzarekin zerikusia duten irizpideak aintzat hartu ditu, ohiko inbertsio jokabideekin batera.

‘Fon Fineco Inversión Responsable, FI’ 2017ko martxoan jaulki zen eta Finecoren lehen ESG Funts osoa izan zen. Bazterketa irizpideak ‘best in class’ irizpideekin uztartzen ditu, bezeroek Europako enpresen bono eta akzioen zorro misto batean inbertitzeko aukera izan dezaten, beti ere ingurugiroaren, gizarte-gaien eta agintaritza ikuspegiaren aldetik jokabide zuzenak dituzten enpresak izanik, epe luzeko arrisku-errentagarritasuna binomioa hobetzeko ahalegina egiten duen bitartean.

AENOR-en zertifikazioa Finecoren ibilbidean mugarría da, eta ESG irizpideak Kutxabanken Banka Pribatuko prozedura guztietan bateratzearekin osatuko da.

Kutxabank Taldearen helburua inbertsio arduratsuen esparruan eredugarria izaten jarraitzea da, eta horregatik atxiki zitzazkion Fineco eta Kutxabank Gestion Nazio Batuen UNPRI sare globalari. Kutxabank Gestionen eta Finecoren estrategia inbertsio arduratsuen kudeatzaile izaera lortzea da. Horrek etengabeko bilakaera eskatzen du, eta ingurugiro, gizarte eta agintaritza korporatiboko irizpideak kontutan izatea kudeatutako zorro guztien inbertsioak baloratzerakoan.